

## SECCION AMENA.

## POBRIAREN SUERTIA.

(Argitaratubagea.—Inédita.)

Beste albiyorik  
 Pobriak ez daka,  
 Negarrez jayo eta  
 Bizi arrastaka;  
 Galtzarbian, kolkuan,  
 Nun-nai arraskaka,  
 Erropetan koipia,  
 Zikiña ta kaka.  
 Jendiak ikustian  
 Artutzen du nazka,  
 Danak pasatzen zaizka  
 Ondotik presaka;  
 Nai baldin badu ibilli  
 Kalian jiraka  
 Ateratu orduko  
 Echetikan anka  
 Mutill chikiyak ditu  
 Atzetik millaka,  
 Azenariyo eta  
 Patata tiraka;  
 Zakurrak ere asten  
 Zayozka saunkaka,  
 Aberiak tiratzen  
 Diyote pullanka,  
 Danak, kristau ta abere,  
 Guziyak chandaka,  
 Gisarajua dute  
 Ibiltzen burlaka.  
 ¡Batek obe luke izan  
 Pobre bañon kaka!

(Vilinch.)

## ITANASIA.

## I

Kabi batean  
 Bost chori chiki,  
 Berua emanaz  
 Danak alkarri,  
 Zeuden gaisoak  
 Kiskur ta geldi,  
 Bil-bill egiñik,  
 ¡Zeñen polliki!  
 Biotz gogordun  
 Eiztari batek,  
 Ikusirik an  
 Choricho ayek,  
 Istanpatean,  
 Erruki gabe,  
 Artu gabe ere  
 Penik batere,  
 Tiro batekin  
 Iltzituben bi.  
 Irakurlea,  
 Maite nerea,  
 Nai nuke orain  
 Zuk asmatzea,  
 Laster ta prestu  
 Ta bat batetan,  
 Zenbat choricho  
 Ziran gelditu  
 Esan dizudan  
 Kabicho artan.

J. M.

## ASKANTZAK.

- III. somaketarena : LAPA.  
 IV. » » Pl.

J M

## SECCION AMENA.

AGIÑ ATERATZALLE BI.

—  
Gutziz pobre bizi zan  
gizon osakin<sup>1</sup> bat  
eziñ irabazirik  
mantentzeko diñbat.  
Alako bizi moduz  
Oso aspertuta  
agiñ kentzen asi zan  
morroi bat artuta;  
bañan irabaziyak  
ain ziran chikiyak:  
erdi gosiak beti  
bizi ziran biyak.  
Morroya aspertuta  
echetikan joantzan,  
gosiak bertan zarri  
galduko ez bazan,  
Esku segurubakiñ  
gero osakiñak  
ateratzen zituen  
egoki agiñak,  
erretzasun batekin  
eta aiñ suabe,  
askok esateraño  
miñik eman gabe,  
Ala irauten zuben  
doi-doi biziri kan,  
potajiaren diña  
ezin sorturikan.  
Kocher balioso bat  
artzalde batian  
gelditu zan beraren  
echeko atian,  
eta andikan jaitzen  
ikusi zubena,  
lengo bere morroya,  
banaituba dena,  
¡Aren erraztun eder,  
kate urrezkoak,  
aren pechuko botoi  
diamantezkoak!,  
aren alajeriya

dena zan aiñ fiña,  
chundituba begira  
zegon osakiña,  
eta galdetu ziyon  
lengo morroyari:  
—Mutill nola ibilli  
iteke orla i?  
-Ni nabill agin ken-  
[tzen  
agikur<sup>1</sup> batekin.  
—Eta ¿non ikasi dek?  
—¡Jauna, berorrekin!  
—¡Orrela ibiltzeko  
entrañak badituk?  
esan nazak: lurpian  
zenbat sartu dituk?  
—Zaldi baten gañian,  
jauna, urte biyan  
lanian eman det nik  
jira Española;  
urratubaz frankotan  
zenbait abo eder,  
asko estutu gabe,  
¡bai, amaika bider!  
nere agikurrakiñ  
milla matrall ezur  
auzi ditut, esanaz  
aurretik lau gezur,»  
—Eta nola fiyatzen  
itukan iregan?  
—Jauna, esango diyot  
zer pasatutzen zan...  
¿zenbat jende uste du  
pill ortan dagola?»  
—Uste diat larogei  
izango dirala.  
—¿Imajiñakorrak<sup>2</sup> or  
zenbat ote dira?»  
—Geyenaz ere iru,  
irizten badira.»  
—Bada, iru oriek  
dira berorrentzat,

eta gelditzeri dira  
bestiak neretzat.»

Gizon jakintzun asko  
orla bizidira,  
azaldu eziñikan  
frankotan argira,  
baña beste batzuben,  
milla astakeri  
egiñaz, bizi dira  
lasa eta ongi.

V. IRAOLA.

I.<sup>o</sup> Itanasiaren askantza.

—  
Kabiyan zeuden  
bost chorichuak  
aitu bezela,  
oso izutuak,  
eiztari gogor  
aren pausuak,  
kontuban jarri  
ziran gaiñuak,  
asmatu nairik  
aren asmuak.  
Ikusirikan  
zuela alchatu  
bere eskopeta  
ta ara zuzendu,  
tira baño len,  
bostetik iru,  
laster ta larri  
ziran egatu.  
Tiroak bada  
anthen achitu  
zituen eta  
illik lajatu,  
ez bost choricho,  
ez lau ta ez iru,  
baizikan bai bi,  
ezin mugitu  
ta ziradenak  
bertan gelditu.

J. M.

(1) Cirujano.

(2) De sentido comun.